

Bide Berdeak

Nafarroa^{ko}
Erresuma



Reyno de
Navarra



Caminos
Naturales

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

VÍAS VERDES ZER DIRA **BIDE BERDEAK/VÍAS VERDES?**

Gaur egun erabiltzen ez diren garai bateko trenbideak dira, eta ibilbide ez-motorizatu bihurtu dituzte, horietan barrena oinez eta bizikletaz ibiltzeko. Espainiako estatu osoan, 3.300 kilometro baino gehiago dago bide berdetan, autonomia-erkidego guztietan barrena.

Igarotzen dituen trenbideetako ibilbideak aprobetxatzen ditu Bide Berdeetako diseinuak, eta, hala, erraztasun eta erosotasun maila handiena eskaini eta edozeinek erabiltzeko moduko ibilbideak lortzen ditu zati gehienetan, haurrek, adindunek eta desgaitasunen bat duten pertsonak barne.

Bide Berdeak magiaz beteriko ibilbideak dira; tarteka, tren-estazio zaharrak agertzen dira, baita lehenago trenek igarotzen zituzten tunel izugarriak eta biaduktu ikusgarriak ere; ibilbide horietako asko meatzaritzakoak ziren, eta beste batzuk, berriz, bukatu gabe gelditu eta inoiz erabili ez ziren trenbideak.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak ibilbide horietako hiru egokitu ditu Nafarroan: Tarazonica, Plazaola eta Vasco-Navarro Trena, Natur Bideak Programaren barruan.





NAFARROAN...

Nafarroako Foru Komunitateak 120 km baino gehiago biltzen dituzten 5 Bide Berde ditu, eta, horietan zehar, bidaiariak nafar lurraldearen eta trenbide estu horien historia, kultura eta ingurune naturala ezagutu ahal izanen ditu. Bide Berdeak Pirinioetan, Nafarroako Erdialdean eta barne Erriberan; mendialdean, baratze- eta mahasti-ingurunetan edo erreka freskoen ondoan... Horietan guztietan barna ibiltzea izanen da Nafarroako Erresuma zure erritmoan ezagutzeko modurik hoberena.

Bide Berde horietako batzuetan (Plazaola, Bidasoa eta Irati) egitekoak diren luzapenek etorkizun oparoa bermatzen dute antzinako trenbide txiki eta zahar horietarako. Eta asetzen ez bazara, ibilbide horietan aurrera segitzen ahal duzu, Euskadiko eta Aragoiko lurretan barna.



Vasco-Navarro Trena ESP331 - 1957



Plazaolaren Bide Berdea

EUROVELO

EuroVelo 1 ziklismo-ibilbide bat da. 8.186 kilometro ditu, eta Ipar Lurmuturra (Norvegia) eta Sagres (Portugal) lotzen ditu. Nafarroako zati handi bat zeharkatzendu Espainiatik igarotzean.

Ederbidean parte hartzeak Bidasoa eta Plazaolaren Bide Berdeak lotu eta EuroVelo 1 Nafarroan garatzen lagundu zuen. Nafarroaren, Gipuzkoaren eta Pirinio Atlantikoen arteko mugaz gaindiko proiektu bat da Ederbidea. Ibilbideak 52 kilometro egiten ditu zirkulazio gutxiko toki-errepideetan barna. Tarteren batean, malda handiko mendateak gainditzen ditu (% 6 eta % 22 artean). Nafarroa komunitate menditsuada, eta ez da erraza Pirinioetako haranak lortzea.

Nafarroak Atlantic On Bike proiektuan ere parte hartu zuen. Nazioz haraindiko lankidetzarako ekimena da, sei herrialdetako 18 bazkidek osatua: Norvegia, Irlanda, Ingalaterra, Frantzia, Espainia eta Portugal. Horrez gain, Europako Txirrindularien Federazioaren laguntza du, EuroVelo 1 ibilbidea turismo-helmugagisa sustatu eta garatzea helburu.

EuroVelo 3 ere, hau da, europar sarearen beste ibilbide handietako bat Nafarroan barna doa. 5.000 kilometrotik gorako trazadura du, 6 herrialde zeharkatzen dituena: Norvegia, Suedia, Danimarka, Alemania, Frantzia eta Espainia. Ibilbide hori Bicimugi mugaz gaindiko proiektuari esker garatu zen, Pirinio Atlantikoen eta Nafarroaren artean. Erromesen ibilbidea ere esaten zaio, Frantziako Donejakue bidearekiko paraleloan baitoa. Pirinioetatik sartu, Orbaizetatik igaro eta Agoitzera iristen da. Gero, Iruñerantz jarraituko du Iratiko Bide Naturalean zehar, eta EuroVelo 1ekin lotuko da; **EuroVelo 1-3** izango da hortik aurrera, Vianaraino.

www.eurovelospain.com

Ederbidea proiektua ►



#10 OINARRIZKO GOMENDIO

1. Errespetatu **ingurumena**, inguruko populazioa, laboreak eta fauna.
2. Errespetatu **seinaleak** eta zirkulazio-arau orokorrak.
3. Gozatu naturaz **zaratarik eta presarik gabe**.
4. Ibili **kontuz** ibilgailuekin batera **partekatzen diren tarteetan**.
5. **Adi ibili** bereziki **tunelak eta biaduktuak** igarotzen dituzten tarteetan.
6. Ez ahanzi **esku-argia**, kopeta-argia edo **bizikleten argiak**, tunelak dituztenetarako.
7. **Prismatikoak, ura eta oinetako erosoak** beti dira gomendagarriak zure txangoetan.
8. Bizikletaz ibiliz gero, **kaskoa erabiltzea** gomendatzen da.
9. Kotsultatu trenetan **bizikletak eramateko baldintzak** **www.renfe.com** webgunean, baita autobusetakoak ere.
10. Kotsultatu **www.visitnavarra.es** eta **www.viasverdes.com** webguneetan aukeratu duzun bidea, informazio gehiago lortzeko eta **izaten ahal diren gorabehereri buruzko abisuen** berri izateko.



1. BIDASOKO BIDE BERDEA

Bidasoaren bazterrean eta Bertizko Jaurerria Natur Parkearen



Bide Berde horrek TrenTxikitoiren ibilbidearen zati handi bat berreskuratu du; tren hura Elizondo eta Irun artean ibili zen, 1956ra bitartean. Gaur egun, ibilbideak, Bidasoa inguruan, baso atlantiko oparoen eta edertasun handiko herrien arteko ibilbide ahaztezina eskaintzen du; Bidasoa Nafarroan eta Euskadin barrena igarotzen den erreka labur eta bukolikoa da; eskualde osoari ematen dio izena, eta Irun eta Frantzia arteko muga ekartzen du gogora. Aipatu behar da Bide Berde hori Eurovelo 1 "Kostalde Atlantikoa" Ibilbiderako sarbidea dela Espainian, eta Plazaolaren Bide Berdean barrena segituko duela Ederbidea proiektuak sortuko duen loturari esker.



Kokapena: Oieregi (Nafarroa) eta Irun (Gipuzkoa)-Behobia artean.

Luzera: 42 km; 34 km Nafarroan

Zoru-mota: Hormigoia, asfaltoa eta lur trinkotua, zatiaren arabera.

*Egokia, baina muga batzuekin (bideko zuloak) Sunbilla - Lesaka tartean, eta maldekin Legasa - Bertizko Jaurerria tartean.

Zerbitzuak: bizikleten alokairua, garraio publikoan joan-etorriak egitea (kontsultatu)

Gomendioak:

-Eraman argiak. Tunel luzeenak argizatuta badaude ere, beti da gomendagarria!

-Errespetatu azizien pasalekuak eta kasu eman motordun ibilgailuekin (Sunbillako zatia). Bide berdea han barna kokatutako zenbait baserriren sarbidea da.




Bertizko ITB. 948 592 386 oit.bertiz@navarra.es

2. PLAZAOLAREN BIDE BERDEA NB

Nafarroatik Gipuzkoara Leitzarango txoko landugabeenen



Larraun eta Leitzarano benetako santutegi naturala dira, sakabanatutako baserriak han eta hemen dituztela. Pagodun eta haritzdun magal hostotsuen artean, sigi-saga ibiltzen zen bide estuko tren txiki bat ("Plazaola"), Iruña eta Donostia artean, XX. mendearen erdialdera arte. Gaur egun, haren ibilbide ikusgarriak zaharberritutako estazioak eta tunel ugari ditu; horien artean, Uitziko tunela dugu, Europako bide berdeetako luzeena (2,7 km). Gainera, Iruña aldera luzatzeko proiektuak eta Bidasoko Bide Berdearekiko etorkizuneko loturak ezagutu beharreko bide berde bihurtuko dute.



Kokapena: Latasa (Kaxarnako merenderoa) eta Andoain (Gipuzkoa) artean. Eta Irurtzun eta Saratsa artean.

Luzera: 63 km; 41 km Nafarroan.

Zoru-mota: Zati gehienetan, trinkotutako lurra.

*Egokia, baina baditu muga batzuk (zenbait malda) ibilbidearen leku batzuetan.

Gomendioak:

- Eraman argiak eta arropa beroa. Nafarroako zatian bakarrik, 19 tunel daude! Tunel asko argiztatuta daude, baina beti da gomendagarria!

- Informatu bide berdearen egoerari buruz www.plazaola.org edo www.viasverdes.com webguneetan.



Lekunberriko ITB. Tel. 948 507 204 oit.lekunberri@navarra.es

3. IRATIREN BIDE BERDEA

Ibilbide harrigarria Irunberriko arroilan barrena



Ibilbideak Iruña eta Zangoza lotzen zituen bide estuko trenbide zaharraren zati bat hartzen du. Gaur egun, Nafarroako leku politenetako batean zehar marraztutako bide zoragarria da, Irunberriko Arroilaren Natur Erreserban zehar, hain zuzen. Disfruta ezazu patxadaz, presarik gabe, zentzumenetarako opari bat da eta. Eta haren etorkizuna: oparoa; izan ere, jatorrizko ibilbidearen 50 kilometroak prestatzeko ari baitira lanean.



Kokapena: Ledea eta Irunberri artean.

Luzera: 6,4 km.

Zoru-mota: Trinkotutako lurra.

*Egokia muga batzuekin (legarra).

Gomendioak: Eraman prismatikoak Irunberriko arroilaz ahalik eta gehien gozatzeko.



Zangozako ITB. 948 871 411 oit.sanguesa@navarra.es

4.VASCO NAVARRO TRENBIDEAREN BIDE BERDEA BN

"Trenico" esaten ziotenaren pausoei segitu Lizarrako ingurune monumentaletik abiatuta



Vasco-Navarro trenbideak, Gasteiztik pasatuz, Lizarra eta Lizarra Mekolalde (Gipuzkoa) lotu zituen, 1927 eta 1967 artean. Haren gainean egindako Bide Berdea-Natur Bideak haren aztarna suspertu du. Nafarroako zatia (29 km) lehengo tren-geltokitik (gaur egungo autobus-geltokia) abiatzen da; Egako ibaiertzeko udalerrietatik igarotzen da eta, handik, Arabako eta Gipuzkoako lurretan sartzen da. Haren ibilbidean zehar, kultura- eta tren-ondasun oparoak –hala nola, Arkijasko biaduktuak eta Acedoko tunelak (1,4 km!)– Estellerria ezagutzeko aukera ematen digu modu harrigarrian.



Kokapena: Lizarra, Gasteiz eta Bergara (Gipuzkoa) artean.

Luzera: 123,5 km; 29 km Nafarroan

Zoru-mota: Zati gehienetan, trinkotutako lurra. Asfaltozko zorua Lizarra eta Zubielki artean.

*Egokia, baina baditu muga batzuk (zenbait malda) Zubielki eta Murieta arteko tartean.

Zerbitzuak: bizikleten alokairua, garraio publikoan joan-etorriak egitea (kontsultatu)

Gomendioak:

- Eraman argiak. Acedoko tunela (1,4 km) argiztatuta badago ere, beti da gomendagarria!



Lizarrako ITB 848 420 485 oit.estella@navarra.es

5. TARAZONICAREN BIDE BERDEA

Ebrotik Moncayora Nafarroako Erriberan barna



Tutera hiritik –Erriberako hiriburua den hiri monumentaletik– Escachamatas (Sasi-zanpatzailea) goitizena zuen tren txiki bat abiatzen zen, eta, Ebrotik, Somontanoraino igotzen zen. Gaur egun, Queiles ibaiaren ibarrak menderatzen duen paisaia batean zehar eramaten gaitu garai bateko trenbide horrek, non hazten baitira Nafarroako barazki bikain eta ospetsuak.



Kokapena: Tutera (Nafarroa) eta Tarazona (Aragoi) artean.

Luzera: 42 km; 34 km Nafarroan

Zoru-mota: zoru mistoa du; asfaltoa eta trinkotutako zagorra.

*Egokia; tarteka, badaude malda batzuk Ablitaseko errepidearen gaineko pasabidean.

Zerbitzuak: bizikleten alokairua, garraio publikoan joan-etorriak egitea (kontsultatu)



Tuterako ITB. 948 848 058 oit.tudela@navarra.es

Nafarroa^{ko} Erresuma



Reyno de Navarra

www.visitnavarra.es

Tel. +34 848 420 420



@visitnavarra

